



Hedy Lamarr

1914-2000

**Teknologiaren
izar disdiratsuena**

Zer
zor diogu?

Sinesgaitza den arren, Hollywoodeko ikono erotiko batek asmatu zuen WiFi. Hedy Lamarr aktorea izan zen, Bigarren Mundu gerrako espioia, eta gainera, ingeniari eta asmatzailea. Berari esker ditugu egun wifia, bluetooth-a edota GPS sistema. Nazien aurka borroka egiteko erabili zuen bere inteligentzia.

Biografia



Jaiotza eta ikasketak

Hedy Lamarr Vienan jaio zen 1914ko azaroaren 9an, Hedwig Eva Maria Kiesler izenez. Aita bankari eta ama pianista baten alaba bakarra izan zen, berak ere abilezia handia zuen pianoarekin eta bere irakasleek Hedyren inteligentzia goraiatu zuten gaztetatik. 16 urterekin hasi zituen ingeniari zikloa, baina aktore izateko amesarengatik albo batera utzi zituen.

Izar baten jaiotza

Berlinen aktore ikasketak burutu ostean, zinemari buruz hasi zen. 1933an ospetsu egin zen "Ekstase" filmearekin. Film horretan, zinema komertzialean, emakume bat (*Lamarr bera*) erabat biluzik ateratzen zen lehen aldiz. Handik urte batzuetara, Estatu Batuetara joan eta aktore gisa hasi zuen karrera. Arrakasta handia lortu zuen, "munduko emakume ederrena" gisara promozionatua izan zelarik. 1960an Hollywoodeko ospetaren pasealekuan izar bat lortu zuen.

Ingeniaritza ihesbide

Hedyk, filmen mundutik haratago, senar jelskor eta autoritarioa zuen eta berarekin ezkontuta pasa zuen garai hura, ingeniari zikloa ikasketetan sakontzeko baliatu zuen. Senarrak harreman estua zuen naziekin eta ekitaldi sozial guztietan Hedy haren ondoan egotera behartzen zuen, baita lan-bileretan ere. Hedy asko ikasi zuen bilera haietan, puntako teknologia militarri buruz. Hala ere, senarraren abusuak ihes egitea erabaki zuen.

Gerra eta espioitza garaiak

Hedy-k helburu garbi bat zuen buruan: bigarren mundu gerran, naziei aurre egiteko Estatu Batuetako armada laguntzea. Senarrarengandik naziei buruzko informazio konfidentzial baliotsua eskuratu ahal izan zuen eta Estatu Batuei eman zien Hitlerren aurkako borrokan erabil zezaten.

Misil jaurtiketen arrakastaren gakoa

1942an Hedyk teknologiaren mundua konkistatu zuen. Garai hartako irratik bidezko komunikazioa segurua ez zela ikusita (*igorlea non zen antzematea erraza zen, baita honi interferentziak eragitea ere*), bere kontura berau hobetzea erabaki zuen. Arazo nagusia zen etsaiek misilen seinaleak blokeatzen zituztela, eta Hedyk hau ekiditeko sistema asmatu zuen. Sistema honen bitartez seinaleak zati txikitzen zituzten, eta zati horiek frekuentzia desberdinak txandakatu zituzten bidaltzea lortu zuen. Etsaiek ez zituzten "zati txiki" hauek hautematen.

Haririk gabeko komunikazio sistema

Asmakuntza honetan (*frekuentzien sinkronizatze sistema*) George Antheil pianista ospetsua izan zuen lagun eta biek irratik bidezko gida-sistema sortu zuten, distantzia luzeko hari gabeko konexioak sortzeko "espektrorik gabeko" erabiltzen zituena.

Aplikazioak egun

Hedy Lamarrek asmatu eta garatutako teknologia Bigarren Mundu Gerran aliatuen torpedoetan interferentziak saihesteko pentsatuta zegoen arren, Estatu Batuek ez zuten hau aitortu Kubako misilen krisia iritsi zen arte, 1960ko hamarkadan. Egun, sistema hori bera haririk gabeko sareetarako aplikazio ugari aurkitu daitezke.

Garai hartako teknologiak hasiera batean ideien bideragarritasuna eragozten zuen arren, gerora iritsi zen transistoreak, zein beste hainbat konponenteen tamaina murrizteak, Hedyren ideia oso garantzitsua bihurtu zuten bai armadarentzat eta baita telefonia mugikorraren industriarentzat ere.

Hedy Lamarr ingeniaria, espioia, asmatzailea eta Hollywoodeko izarra izan zen besteak beste. Bere diridira presente dago gure egunerokoan oraindik ere: sare mugikorretan, Bluetooth, GPS eta WiFi gailuetan...

“Ezezaguna beti izan da hain erakargarria niretzat... eta oraindik ere hala da”

Edozein neska izan daiteke glamurosa. Egin behar den gauza bakarra, geldirik egon eta tuntuna ematea da”

Mundua ez da gero eta errazagoa. Presaka egindako bidea ez da bide egokia; denetarako denbora behar duzu: lan egiteko denbora, jolasteko denbora, atsedean hartzeko denbora.”

HEDY LAMARR